

42. Ingurumen Buletina



2017ko urria

1. Garoñako zentral nuklearraren heriotza ziurtagiria
2. AHTren egoera Nafarroan
3. Hiri mugikortasuna: eskubide kontua
4. Harvey urakana ez dator ezerezetik. Orain da klima aldaketaz hitz egiteko momentua (NAOMI KLEINen artikulua)



1. Garoñako zentral nuklearraren heriotza ziurtagiria

ELAk Garoñako zentral nuklearraren itxiera txalotzen du. Baina erabaki hau bere osotasunean baloratzeko itxiera hau eragin duten faktoreak aztertu behar dira.

Erabaki honen atzean, ez dago zentzuzko planteamendurik edo energia berriztagarrien aldeko apusturik, gutxiengoan dagoen eta beste aukerarik izan ez duen gobernu bat baizik. Izan ere, pasa den abuztuaren lehenean, Energia Ministroa den Alvaro Nadalek zentral nuklearra itxiko zela iragarri zuenean onartu zuen beste bukaera bat nahiago lukeela auzi honetarako.

Eragile sindikal eta sozialak elkartzen garen Araba Garoñarik gabe ekimenak 15 urtetan zehar kaleetan aurrera eraman duen borroka, zentralaren errentagarritasun ekonomikoaren inguruan Iberdrolak zituen zalantzak, berriro zentrala irekitzearen aurka agertu den oposizio politikoa,... faktore guzti hauek izan dira balantza alde batera bultzatu dutenak eta ondorioz, Garoña ixtea eragin dutenak. Garoñaz bakarrik ari gara hitz egiten, itxiera honek ez baitu espainiar Gobernuaren energia ereduaren inongo aldaketarik suposatzen. Hau horrela izanik energia nuklearraren aurkako borroka aurrera jarraitu behar du. Orain Garoñako zentrala desegin behar da eta eragile sozial eta sindikalen papera ez da bukatu beraz, alderantziz, gure papera prozesu honen jarraipen zorrotza egitea izango da, ahalik eta modu seguruenean egingo dela ziurtatzeko.



Araba Garoñarik gabe ekimena / Iniciativa Araba sin Garoña

Garoñaren itxiera garaipen gisa ikusi behar dugu, baina aldi berean adi egon behar gara etorriko denaren aurrean. Aliantza zabal eta indartsua eraikitzeko gai izan behar gara. Borroka zabalago baten aurrean erantzuteko: ingurumenaren kolapsora garamatzen eta gobernuak egun babesten duten eredu energetikoa aldatzea. Borroka bat irabazi dugu baina oraindik asko dugu egiteko.

2. AHTren egoera Nafarroan

Azken asteetan AHTren gaia pil-pilean dago Nafarroan, Nafarroako Gobernua eta Sustapen Ministerioaren akordio ezari esker.

AHT espainiar Gobernuaren eskumena da. Baina Nafarroako Gobernuak bere egunean espainiar Gobernuarekin konbenio bat sinatu zuen, zeinaren arabera obraren betearaztea Nafarroako Gobernuaren esku geratzen zen, ondoren espainiar Gobernuak Nafarroakoak aurreratutako dirua itzuliz.

Egungo Nafarroako Gobernuak aurrekoa ordezkatzeko duen konbenio berri bat sinatzea proposatu du, proiektuaren nondik norakoak batere zalantzan jarri gabe. Halaber, Nafarroako Gobernuak AHTren konbenioaren sinadura Estatu eta Nafarroaren arteko Konbenio Ekonomikoaren sinadurarekin baldintzatu nahi du. Geroa Baik gobernua osatzen duten gainontzeko alderdiekin dituen desadostasunak direla eta, Nafarroako Gobernuaren 2018ko aurrekontuan AHTrentzat diru partida bat sartzea arazo politiko bihurtu zaio. Horregatik aurten Villafranca-Olite eta Olite-Peralta tarteen lizitazioa, eta 2018an obrak Estatuaren esku geratzea nahi zuen Nafarroako Gobernuak.

Bitartean, Sustapen Ministerioak, AHTren konbenioa eta Konbenio Ekonomikoaren negoziazioak banandu nahi izan ditu. Nafarroako Gobernuari indarrean dagoen konbenioan adostutakoa betetzea exijitu dio. Hau horrela izanik, Nafarroako Gobernuak aurten hurrengo bi tarteak esleitu eta hurrengo urteko obrak aurrera eraman beharko lituzke, hau bermatzeko aurrekontuan diru partida bat sartuz.

ELAk ez du eztabaida termino hauetara mugatu nahi, gure ustez azaleko eztabaida baita. Haratago joan eta gaiaren muina salatu nahi dugu: obrak aurrera eramateko erantzukizuna batarena edo bestearen izanda ere, AHT inongo justifikazio ekonomiko eta sozialik ez duen proiektua da, ingurumen ikuspuntutik astakeria, eta ez da inola ere interes orokorrekoa.

Azken aldiaren entzuten ari garen gatazka, lanak aurrera eramateko ardura norena den eztabaidatzera mugatzen da. Argi erakusten dute AHT eraikitzeke adostasuna. Beraz, justifikazio politiko hutsa ematen diote proiektuari estrategikotzat joz, nahiz eta inongo errentagarritasun ekonomiko, sozial edo ingurumenekorik ez izan, are gutxiago AHTk aurrekontuetan dituen diru partidak benetako beharrak dituzten beste arlo batzuetatik kentzen badira, besteak beste, osasungintza, hezkuntza edo gizarte zerbitzuetatik.

Honek, interes orokorraren aurka doan proiektua izanik, gizarteko maila txiroenetatik aberatsenetara zerga bidez egiten den transferentzia bat suposatzen du. AHT eraikitzea ingurumenaren guztiz aurkakoa da, hainbat arlotan eragin izugarriak dituen (habitatak eta bioaniztasuna suntsitzea, lur emankorrek okupatzea, inpaktua paisaian, zaratak, bibrazioak,...). Lurraldearen zatiketan duen eragina ere izugarria da, orain arte trenaren bitartez loturak zituzten hainbat zonalde loturarik gabe utziko baititu.

Arrazoi guzti hauengatik, AHTren aurrean izan daitekeen jarrera arrazoizkoena proiektua gelditzearen aldekoa da. Beharrezkoa da Nafarroako trenbide sarearen inguruko eztabaida bat izatea, non gizarte osoak parte hartuko duen. Eztabaida honek Nafarroako gizarteak benetan dituen beharrak plazaratu behar ditu: Zer nahi dugu? Lurraldea lotuko duen trenbide sozial, iraunkor eta errentagarria? Ala, irizpide politikoetan oinarritutakoa, errentagarritasun azterketarik gabea eta garestia den trena?



Honen aurrean, eta orain arte ELAn egin dugun bezala, azpiegitura injustu hauen aurrean mobilizatzen jarraituko dugu. Datorren azaroaren 11n, Iruñean izango den AHTren aurkako manifestazioan ikusiko dugu elkar.

3. Hiri mugikortasuna: eskubide kontua

Gaur egun hiriek dituzten desfiorik handienak mugikortasunari lotuta daude. Batez beste, gidari batek urtean 5 ordu galtzen ditu auto pilaketetan. Espainiar Estatuaren kasuan datu hau 18 ordura iristen da. Esan daiteke beraz trafikoak hiriak geldiarazten dituela.

Hau ez da larriena. Mugikortasunak CO₂ isurketen %40 suposatzen du. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) 2014ko estimazioen arabera, aldez aurreko 7 milioi heriotza eman ziren airearen kutsaduraren ondorioz, eta kutsadura horren zati handi bat hiriko garraioei dagokie.

Bestalde, Europako Komisioak eginiko ikerketen arabera Europar Batasuneko pilaketek urtean 100.000 milioi euro suposatzen dute (galdutako denbora, erregaiaren galera eta kosteen hazkundera kalkulatur). Hau gutxi balitz, honi hazkunde demografikoa gehitu behar zaio. 2010 urtean auto salmenten hazkundera urteko 70 milioikoa bazen, 2025 urtean hazkunde hori 125 milioikoa izango da.

Baina albiste hobeak ere badaude. McKinseyk egindako ikerketen arabera badira lau joera hiriko mugikortasuna modu eraginkorrean aldatzen ari direnak, hiriak iraunkorragoak eta inklusiboagoak diren ereduera garamatzatenak:

- DIGITALIZAZIOA ETA KONEKTIBITATEA: Trafikoko datuen kudeaketa eta prozesatzea denbora errealean egiteak ibilgailuen informazio zehatza lortzea eta lurralde antolaketa iraunkorrago bat egitea ahalbideratzen du. Ahaztu gabe faktore hauek posible egiten dutela Internetera konektatuta soilik etxetik lan egitea edo bileretan parte hartzea. Baliabide hauek desplazamendu beharra ezabatzen dute.
- AUTO ELEKTRIKOENTZAT AZPIEGITURAK: Auto elektrikoen salmentak 2014ko 2,3 milioitik, 11,5 milioira igoko dira 2022an.
- PARTEKATUTAKO AUTOAK: Auto partekatzearen onurak asko dira, auto bakoitzaren erabilera maximizatzen du, eta auto kopurua eta ingurumen eragina murrizten du.
- AUTO AUTONOMOAK: Badira puntako teknologia erabiltzen duten hainbat enpresa ezaugarri hau duten autoen prototipoetan lanean ari direnak gaur egun. Gidariei ekarriko dizkien erraztasunen artean hauek: istripuak gutxitu, errepideen erabilera hobetu, ingurumen eragina murriztu eta garraioak optimizatu.

Tendentzia hauek esperantzagarriak dira, baina ez dira nahikoa kutsadura eta trafiko pilaketa arazoak konpontzeko. Horretarako ezinbesteko da administrazio publikoak garraio publiko sare egoki bat eta mugikortasun aukera ezberdinen konbinazio bat bermatzea, bizikletak eta oinezkoak lehenetsiz. Izan ere, zenbat eta hobeak izan aukera berri hauek, hiritarrek auto bat erosteko edo erabiltzeko joera murriztuko da. Mugikortasuna, orain inoiz baino gehiago, eskubide kontua da eta horregatik erronka garrantzitsu honen aurrean administrazio publikoei exijitu behar diegu neurri kontsekuenteak har ditzaten.

4. Harvey urakana ez zen ezerezetik etorri. Orain da klima aldaketaz hitz egiteko momentua (Naomi Kleinen artikulua)

Hau da klima aldaketaren eta injustizia sistemikoen inguruan hitz egiteko momentua. Injustizia sistemikoek giza hondamendi bihurtzen dituzte Harvey, Maria, Jose eta Irma urakanak bezalako desastre klimatikoak.

Harvey urakanari eta Houstongo uholdeei emandako kobertura mediatikoari arreta jarritz gero, ikus dezakegu prezipitazio mota horiek inoiz ikusi gabeko gisa azaltzen dizkigutela: inork ez zuenez aurreikusi, ezinezkoa izan zen modu egokian prestatzea.

Baina ez da hitz egiten fenomeno hauek gertatzearen eta gero eta maiztasun handiagoaz gertatzearen zergatiaz. Hau da, komunikabideek gutxitan aipatzen dute klima aldaketa gertaera hauek ematen direnean.

Diotenez, ezbehar hauek ez politizatze gertatzen omen da, eta agian ulergarria izan daiteke. Baina kontuan izan behar da baita, komunikabide batek horrelako gertaera klimatiko bat ezerezetik etorriko balitz bezala tratatzen duenean, erabaki politiko argia ari dela hartzen: eztabaida ekiditea egia esatearen gainera. Gertaera guzti hauek aspalditik aurreikusi dituzte klima aztertzen duten zientzialariek. Itsasoaren beroketak ekaitzak areagotzen dituzte. Itsas mailaren igoerak ekaitzak lehen iristen ez ziren lekuetara iristea ahalbidetzen du. Temperatura beroagoek prezipitazioak muturrekoagoak izatea dakar, eta baita euri edo elur prezipitazio gogorrek etendako lehorte epe luzeak ere.

Urtero lehorre, ekaitz edo tenperatura altuen datu errekorrak erregistratzea planetaren tenperatura gorantz doanaren seinale da, datu meteorologikoak erregistratzen hasi zirenean baino altuagoa. Harvey urakana bezalako fenomenoek jarraipena egin eta datu hauek ekiditean klima aztertzen duten zientzialariek ahotsa eman eta gauzak argi azaltzeko aukera galtzen da. Joera honek kazetaritzaren zeregin garrantzitsuenetako batean kale egitea suposatzen du: gertaerei testuinguru egokia ematea. Ikusle eta entzuleei fenomeno hauek funtsezko eragilerik ez dutenaren sentsazioa uzten zaie, eta hortik ondorioztatzen da kalteak ekiditeko ezin dela ezer egin.

Mundu perfektu batean eztabaida politikoa itxaronaldian utziko genuke larrialdi egoera pasa arte. Eta ondoren mundua salbu egonik, eztabaida luzea edukiko genuke, bizitako krisiak barne dituen inplikazio politikoek inguruko eztabaida informatua eta zuhurra. Nola eragiten die krisi honek eraikitzen ditugun azpiegituri? Ze inplikazio du horniketarako energi iturria aukeratzeak? Etorkizun zail baten aurrean, zein eragin izango dute gaixoen, pobreen eta adinekoen ahultasunak eraiki beharreko segurtasun sare eremuan?

Beraien etxeak uztera behartuta egon diren milaka pertsonak ikusita, arazo klimatikoek eta migrazioaren arteko lotura ukaezinaren inguruko eztabaida beharrezkoa da. Eta eztabaida honek beste batera garamatza, migrazio politiken ingurukora. Estatu Batuak adibidez, milioika pertsona beraien bizilekuetatik kanpo mugitzearen atzean dauden arrazoi nagusien arduraren kuota handi bat dauka.

Baina ez gara bizi eztabaida hauek izaten uzten digun mundu batean. Alderantziz, beste krisi klimatiko bat aitzakia izan da politika oportunistak eta eskuinekoak aurrera eramateko. Eta aurreikusi dezakegu Harvey eta beste antzeko hondamendietan berdin jokatu dutela: soluzio faltsu eta hondatzaileak saltzen saiatzen dira, esaterako polizia militarizatua, gas eta petroleo azpiegitura gehiago, eta zerbitzuen pribatizazioa. Honi aurre egiteko ongi informatutako jendea behar da, arrazoi nagusiei erreparatzen diena. Kutsadura, arrazakeria eta zerbitzu sozialak erlazionatzen dituena. Azken hauek, geroz eta baliabide gutxiago jasotzen dituzten poliziara zuzenduriko diru partidak goraka doazen bitartean. Guri dagokigu emisioen murrizketarako soluzioak eskaintzea desberdintasun eta injustizia mota guztien aurka borrokatzen den bitartean.



Eta hau oraintxe egin beharrekoa da, bestela eragile krudelei atea irekita utziko diegu hondamendi hau beraien helburu dohakabeen lorpenerako erabiltzeko.

Egia da eztabaida hau sartzeko aukera oso estua dela. Eta jendea etxean giltzapetuta dagoen bitartean honi buruz hitz egitea egokia ez dela dirudien arren, hau da momentu bakarra klima aldaketaren inguruan hitz egiteko interesa dagoena. Egoerak hobera egiten duenean hitz egiteko zain bagaude, komunikabideen interesa jada beste gai batzuetara desbideratuta egongo da. Houstongo gertaeretan zerbait ikasi badugu, testuinguru egokia eman eta ondorioak ateratzeko dugun denbora oso motza dela izan da. Ezin dugu aukera desprobatzen utzi.

Hondamendi hauen eragileen inguruan argi eta garbi hitz egitea, baita gertatzen ari den momentuan bertan ere, bizia galdu dutenei duintasuna emateko bide bakarra da, eta baita biktimizatutakoentzat etorkizun bat saihesteko gure azken aukera ere.